

|  |  |                      |
|--|--|----------------------|
| <b>Berdintasun Zerbitzua</b>                   |  | <b>Getxoko Udala</b> |
| <b>Gaia: BERDINTZASUN KONTSEILUAREN BILERA</b> |  |                      |

**Bilerari buruzko datuak:**

Data: 11-09-2014 Tokia: Santa Klara jauregia Ordua: 17.00 – 18.30.

**Bertaratuak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Eskuz-Esku: Isabel Perez

Gizatiar: Marisa Pedrero, Begoña Fernandez

Mujeres con Voz: Luciana Gómez Davies

Roda: Clara Lorenzo

ELA: Elvira Lemona

Udal-talde sozialista: Inés Becares

Bildu: Arantza Gutierrez

EAJ-PNV: Elena Coria

Talde popularra: Ana San Basilio

Lehendakaria: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi.

**Bertaratu gabeak:**

Getxo Enpresa

Enclave de ciudadanas por Getxo

**Gai-zerrenda**

- Aurreko akta onartzea.
- Aktak onartzea.
- Jaietako kanpaina baloratzea.
- Azaroaren 25erako, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunerako, proposamenak.
- Galde-eskeak.

## **Aurreko akta onartzea**

Aurreko bilerako akta onartu egin dute.

## **Aktak onartzea**

Berdintasun Kontseiluak azaldu du udaran elkarte batek proposatu zuela aktak posta elektroniko bidez onartu ahal izatea, hurrengo bilerara itxaron beharrean, eta gainerako elkarteak eta talde gehienak proposamenaren alde agertu zirela. Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du, ordea, Kontseiluaren funtzionamendua arautzen duen araudiko 17. artikulua araberak aktak Kontseiluaren hurrengo bileran onartu behar direla. Hala, jakinarazi du Berdintasun Zerbitzua akta ahal bezain laster bidaltzen saiatuko dela, baina formalki hurrengo bileran onartu besterik ez dutela.

Bilgune Feministak, prozedura aldatzeko proposamena egin zuen elkarteak, argitu du proposamena egin zutela udal-lokalen ardura duen zinegotziarekin bilera zutelako eta eskariarekin batera Kontseiluak onartutako aurreko bilerako akta aurkeztu nahi ziotelako.

## **Jaietako kanpaina baloratzea**

Berdintasuneko teknikariak zer jarduera egin diren azaldu du eta informazio zehatzagoa eman du. Kanpaina egiten den jai guztietan (Andra Marin, Algortako San Inazio, Portu Zaharrean eta Areetan) berdintasuneko eta sexismorik gabeko jaien aldeko azken urteetako irudi bera zuten kartelak jarri dituzte, eta txapak banatu dituzte, salbu Areetako jaietan, oraindik ez baitira hasi. Txapak banatzeko pertsona bat kontratatu dute pare bat ordurako, txupinazoaren egunerako, eta txosna gehienek parte hartu dute. Guztira 3.500 txapa banatu eta 800 kartel jarri dira.

Andra Marin, gainera, gazteentzako prestatutako *Dibertitzeko eta zure burua babesteko errezetak, ideiak eta aholkuak* liburuxka banatu zen; liburuxka hori iaz argitaratu zen, maiatzeko jaien ondoren. Horrez gain, gaueko autobusa jarri zen martxan, beste behin.

Berdintasuneko teknikariak Algortako jaietan salatutako sexu-erasoa ekarri du gogora, eta galdetu du talderen batek eman zitzaion erantzuna baloratu nahi al duen; izan ere, Udalak prentsa-ohar bat idatzi eta elkarretaratzeko deia egin zuen, Berdintasun Kontseiluarekin eta Jaietako Batzordearekin batera.

Gizatiarrek aipatu du elkarretaratzearen amaieran norbaitek manifestu edo testuren bat irakur zezan zain geratu zirela. Berdintasun Kontseiluaren iritziz, ez zegoen ezer esan beharrik, Udalak prentsa-oharra egin zuelako dagoeneko. Berdintasuneko teknikariak adierazi du deialdia egiteko taldeekin harremanetan jarri zenean eta

elkarretaratzea prestatzen ari zenean ez zuela pentsatu komunikaturik egitea, baina elkarretaratzean bertan amaitzeko zer edo zer esatea komeni zela konturatu zela. Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du komunikatua ez dela elkarretaratze guztietan egiten.

PPko ordezkariak galdetu du gai horretaz berri gehiagorik ba al duten eta norbait atxilotu al duten. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio epaitegira igorritako diligentzien berri baino ez dutela.

PSEko ordezkariak esan du gertakari horiek agerian jartzen dutela egiten den lana beharrezkoa dela, eta baita eskasa ere, eta orain arte egindakoa azpimarratzen jarraitu beharra dagoela. Adierazi du, baita ere, agian zaintza handiagoa behar dela.

Bilgunek galdetu du orduan pertsona bakoitzeko polizia bana jarriko al duten, irizten baitio polizia asko egon dela. ELAko ordezkariak bat egin du adierazpen horrekin, eta uste du Algortako jaietan polizia asko zegoela.

Berdintasuneko zinegotziak esan du sentsibilizatzen jarraitu beharko dutela, jendea konturatzekeo jaietan dena ez dela onargarria eta ezezkoak ezezko direla.

### **Azaroaren 25erako proposamenak**

Berdintasuneko teknikariak azaldu du enpresa batekin harremanetan jarri direla, eskatzeko azaroaren 25erako ohiko jardueraz aparte proposamen bat egitea. Eskarian bi helburu jarri dituzte: indarkeria sexistaren kontrako borroka bistaratzea eta herritarrak, batik bat udalerriko elkarrekin, inplikatzeko. Proposamena zehazten dutenean Kontseiluan aurkeztuko du.

#### Manifestua

Bilduk proposatu du, azaroaren 25ean Udalbatzak bilera duenez, manifestu instituzionala egiteaz gain ekitaldiren bat antolatzea. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio bileran adierazpena onartu baino ezin dela egin; kasu honetan, Bozera maileen Batzordeak onartu eta Udalbatzari igorri ordez, Udalbatzak berak onartuko lukeela.

Berdintasuneko teknikariak galdetu du Udalbatzaren bilera-eguna aldatu al daitekeen, azaroaren 25ak balio sinbolikoa duelako eta garrantzitsuagoa iruditzen zaiolako egun horretan elkarretaratzea eta erabakitako jarduerak egitea, Udalbatzak bileran adierazpena onartzea baino.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio bilera-eguna aldatu daitekeela, baldin eta taldeak ados badaude.

PSEk galdetu du manifestua Kontseiluak berak egitea posible al den. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio Berdintasuneko egindako manifestua onartzen dela (manifestu hori idazteko prozesuan hainbat udalerritako teknikariak

parte hartzen dute) eta gero Kontseiluari aurkezten zaiola, ekarpenak egin ahal izan ditzan.

Bilduren iritziz askoz interesgarriagoa da manifestua Kontseiluak berak egitea. Berdintasuneko zinegotziak adierazi du indar handiagoa duela udalerrri guztiek manifestu bera onartzea.

Gai horretaz eztabaida egin dute eta, azkenean, Berdinsarearen manifestua heldu arte itxarotea erabaki dute eta, edukiaren arabera, manifestu hori onartzea, ekarpenak egitea edo manifestu berri bat egitea.

PPk galdetu du manifestua onartuko balitz, aldaketekin edo aldaketarik gabe, nork sinatuko lukeen. Berdintasuneko teknikariak erantzun dio sinadura berbera izango litzatekeela baina, kasu horretan, manifestua nork egin duen adierazi beharko litzatekeela edo manifestua Berdinsareko gainerako Udalekin batera onartu dela azaldu.

### Jarduerak

Jarduerei dagokienez, Berdintasuneko zinegotziak proposamenak aurkezteko epe bat jartzea proposatu du.

Mujeres con voz elkarteak galdetu du jarduera guztiak biltzen dituen posterrrik egin al daitekeen. Berdintasuneko teknikariak erantzun dio baietz, baina esan du interesgarriagoa ez ote litzatekeen jarduerak elkarrekin antolatzea, elkarte bakoitzak bere jarduerak antolatzea baino. Gizatiarrek adierazi du aurreko urteetako jarduerari eusteko asmoa dutela, eta Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio ondo iruditzen zaiola ostegunetako hitzaldiei eustea, baldin eta entzuleak badauzkate, baina hori ez dela beste elkarte batzuekin beste jarduera batzuk antolatzeko oztopoa.

PPk proposatu du emakume bat erailtzen duten bakoitzean puntu lilara joatea eta kandela bat eta "Gaur X hil dute" testua jartzea.

Eskuz Eskuk proposatu du zinekluba baliatzea azaroaren 25ean-edo gai horri buruzko pelikula bat jartzeko, zehazki "Contra la pared" filma.

Bilgune Feministak gogoratu du indarkeria sexistaren etengabea dela eta urte guztia dutela gaiari buruzko ekintzak antolatzeko.

Bilduk galdetu du Berdinsarean eguneroko indarkeriaren gaineko hausnarketa egiten ari al diren, eta Berdintasuneko teknikariak erantzun dio hori dela kezketako bat, eta beti saiatzen direla indarkeria bikote barruko tratu txarrez harago bistaratzen. Alde horretatik, esan du Emeki aldizkarian, azaroaren 25ean, indarkeria sexistaren modu anitzak bistaratzen saiatzen direla eta urtero arlo desberdinen bat lantzen dutela.

Eskuz Eskuk (?) proposatu du elkarteek indarkeriaren inguruko irakurketa-saio bat antolatzea, beste udalerrri batzuetan egin dutelako eta interesgarria iruditzen zaiolako.

Gizatiarren iritziz, azaroaren 25aren berri ez da behar bezala ematen eta hobeto egiteko modua pentsatu beharko litzakete. Alde horretatik, proposatu dute leku estrategikoetan puntu lila handi-handiak jartzea. Berdintasuneko zinegotziak gogoratu du Udalak jartzen dituela puntuak udal-eraikinetan. Bizkaiko zubian puntu bat jartzeko aukera planteatu dute, eta gai hori kudeatzen duen enpresarekin hitz egingo dute. Bilduk proposatu du Andramari kiroldegian jartzea puntu lila bat, auzo hori kanpainatik kanpo gera ez dadin.

Berdintasuneko teknikariak proposatu du Kontseiluko elkarte eta taldeak gehiago inplikatzea, hau da, teknikariak lan handiena egin arren, talde batek jarduerak antolatzea. Proposamen hori oso ondo hartu dute, baina ez dute ezer zehaztu.

Ekarpenak bidaltzeko epea: irailak 25.

### **Galde-eskeak**

Ez dago galde-eske edo komentariarik.

**HURRENGO BILERA: URRIAK 16, OSTEGUNA, 17.00ETAN SANTA KLARAN.**